

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Inauteriak bertan dira

Andoingo Kaldereroek Inauteri jaiaren iragarpena egin zuten, aurreko larunbatean / 6-9

Larunbata, egun handia

Inauteri festa nagusia Andoainen eta Urnietan, goizean hasita / 14

Axier Guirado
Andoingo
eskalatzaileari
elkarrizteka,
izotzari begira / 11

"Hondamendia"
antzezlanaren Saroben
eskainiko dute.
Elkarrizketa Fuchs
zuzendariari / 2-3

bertako -REKIN BAI!
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 983 450
BIZKAIA
946 523 935
ARABA
945 712 822
NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus



Ximun Fuchs en esanetara, Saroben zortzi aktore taularatuko dira "Hondamendia" antzezlan eskaintzera. EITB

“Galderak ondo marrazten saiatu gara, eta erantzunak ez daude gure esku”

XIMUN FUCHS ANTZERKI ZUZENDARIA ETA AKTOREA

“Hondamendia” antzezlan izango da Sarobe arte eszenikoaren gunean, hilaren 26an, arratsaldeko 19:00tan. Axut! eta Artedrama konpainien elkarlanaren emaitza da

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Bat, ez, bi tragedia ditu abiapuntu Axut! eta Artedrama konpainiek, hamarkada pasatxoko elkarlanean, berriki ondutako “Hondamendia” antzezlanak: Zaldibarko zaborteziaren amiltzea, batetik, eta auzia are gehiago estali zuen luizia, bestetik, pandemia, hain justu ere. Ximun Fuchsek zuzendu ditu galderarikurrak oholtza gainean eta,

hariei tiraka, fikzioak lagunduta, ikuspuntu filosofiko bezain pertsonalez igoko dira Sarobeko taulara zortzi aktore hilaren 26an, arratsaldeko 19:00tan.

Hiru urte igaro ziren joan den hilaren 6an Zaldibarko zabortegia amildu zenetik. Tragedia horri beste bat batu zitzaion, pandemia. Oraindik, auziak lurpean jarraitzen duen honetan, zuek gaia hizpide duen obra oholtzaratu duzue.

Beste alde batetik begiratzen dugu gaia. Ez dugu salaketa lana egiten. Tragedia horretan berkokatzen saiatu gara, zeren horixe baita, azken finean, tragedia itzela. Nola bizi izan zuen gertutik jendeak? Zer kontatzen du gutaz horrek? Mendi bat, zaborrez betetako mendi bat, guk geuk elikatutako zaborrez betetako mendi bat erori zaigu gainera, eta, tartean, bi pertso-

na eraman ditu. Horrek hausnarketarako aukera eman digu: nola tratatzen ditugu gure langileak? Oraindik, gaur egun, langile bat hiltzen da astero lanean. Beharrezkoa al dugu hori bizitzeko? Horrez gain, gainera, erretiroa hartzetik gertu dabilen jendeak izaten ditu lan-istripu asko. Beharrezkoa al dugu jubilatzeke adin-tartea atzeratzea? Zer egin zaborrarenkin? Inork ez du nahi zabortege bat bere etxe alboan.

Gauza asko lotzen dira eta gu bidexka horretatik joango gara alderdi filosofikoan, baita pertsonalean ere. Nola bizi da aitaren arrastoak zabortege baten azpian aurkitu dituen alaba? Hori guztia maila humanora eraman dugu eta hori da obraren gaia. Pertsonak oholtza gainera igotzen ditu antzerkiak eta beraien sentimendu eta hausnarketak oso molde irisgarrian ipintzen dizkie ikus-entzuleei. **Errepidean, autopistan bertan zineten luizia gertatu zenean. Zer mugitu zitzaizuen barruan, une horretan, albiste desatsegin horri tira egin eta tragedia antzezlan bihurtzeko?**

Gauza asko mugitu zitzaizkigun. Munduaren lehen amaiera ematen zuen horrek, pandemia etorri baino lehen. Denak kotxetik atera ginen, zerbait sinesgaitza gertatu baitzen. “Krak” handi bat izan zen, eta Euskal Herrian izugarriko oihartzuna izan zuela ikusi dugu. Izan ere, zabortege horretan gordetzen zena, erabat, legez kanpo zegoela susmatzen zen, jasangaitza zen hor zegoen kaka guztia eta hainbat mamu piztu ziren gure gizartean, bi langileren desagerpenarekin.

Hori gutxi balitz bezala, beste tragedia batekin estali zuen aurrekoa, pandemiak. Biak nahiko lotuak dira, mundu mailako osasun-larrialdi egoerek eragin baitute zabortegeien pentsaeraren aldaketa: lehen, hiriaren erdigunean zeuden eta kolera edo tifus bezalako pandemia handiek zabortegeiak aldirietara eramatea eragin dute.

Halaber, pandemia garaian, heroiak bezala txalotzen genituen leihoetan lanean zeuden osasun-langileak. Orain, badi-rudi ahanztzuak ditugula. Beren egoera ez da aldatu... Bestelako osasun-larrialdi bat etorriko balitz, hobeki erreakzionatuko al genuke? Ez naiz segur. Egoerak, badi-rudi, txarrera egiten

duela oraindik. Gauza asko aldatu dira: gu eta geure komunikatzeko moduak zein bideak, euskararen erabilerak behera egin du, artea komunitatean partekatzeke era asko aldatu nahiz txikitu da, eta oraindik kultur sektore osoak zailtasunak ditu bertatik ateratzeko, baita ostalaritzak ere... Orduan, garai hori kontatzea pentsatu genuen, antzerki bidez. Demokrazia eta filosofia momentu berean asmatu dira, leku berean, Aintzinako Grezian, eta ez da kasualitatea. Beharrezkoa dugu antzerkia demokrazia ongi eramateko eta demokrazia behar dugu ongi eraman gure antzerkiak balio bat ukan dezan. Hala, zerbait komunitarioa sortu nahi genuen, txikitik, antzerkitik, guk denok aurki ditzagun elkarrekin hortik ateratzeko modu duinak.

Harkaitz Canorenak dira hitzak. Eta ideia labur batekin azaldu du berak obraren sinopsia: “Tragedia greziar baten errepikapena da ia: mendi bat erori da bi gizonen gainera”.

Eta horrekin dena kontatzen da. Izua eragiten du: gu baino handiagoa den zerbait gertatzen ari da, eta guk eragindakoa da. Gurrpil-zoro horretatik edo abiadura handiko tren horretatik ateratzen ez bagara, oso gaizki bukatuko dugu.

Benetako gertakari baten argazki propioa egiten du obrak, fikziozko zertzeladekin, beti.

Guk ezin dugu egia kontatu, ez dakigulako, berez, zein den. Pandemiak hori ekarri du: ez genuen ezer sinesten eta balioa galdu zuen hitzak. Zer sinetsi dezakegu, ez bada artetik kontatzen dena? Ez zen esentziala, bazirudien ez zela ezinbestekoa, Bada, nondik kontatu dezakegu egi zerbait? Gezurretik, fikziotik, antzerkitik. Horretarako, gezurtari profesional bat deitu genuen, Harkaitz Cano. Xamur-tausnetik, goxotasunetik kontatu du, baita umore keinuekin ere, izan ere, hain da krudela, berez, istorioa... Gu baino askoz ere handiagoa da, orduan, umiltasunez kontatu behar genuen. Baina kontatu, kontatu behar genuen, bestela, ez ditugu garatuko gure tresna propioak, gure hizkuntzan, historia ulertzeko.

Ondo uztartu al dira bi alde horiek? Jende askoz inguratu gara obra egiteko; tragedia gertutik bizi izan zuten hainbat eta hainbat

etorri dira gure obra ikustera, tartean, zientzilariekin edo Nahia Soraluzerekin mintzatu gara, Alberto Soraluze langilearen alabarekin. Oso babestuak izan gara sorkuntza-prozesu guztian, zuzen lan egiteko. Jendearekin zintzoak izatea oso garrantzitsua zen guretzat. Egia konplexu bat taularatu nahi genuen, eta, era berean, eskuragarri egiten publiko arruntarentzat.

Zortzi aktore, hogei pertsonaren azalean. Ostera, gai berarekin bus-titzen al dira guztiak?

Hori ikusleak esango du. Guk lanaren parte handi bat egiten dugu, baina ez guztia. Ikusleak beti osatzen du. Galdera-ikurrak ondo marrazten saiatu gara, eta erantzunak ez daude gure esku.

Hogei aurpegi horien inguruan, zaborra, zaborra eta zaborra.

Zabor gisa jantziak erabili ditugu, zertarako? Gure intimitatearekin oso lotuta dauden arrastoak direlako. Toki batetik bestera mugitzen ditugu. Bestalde zabor numerikoa ere badaukagu, elektrikoa dena ere badelako zaborra. Hitzen zaborra, edukien zaborra, nonbait bildu behar da. Biltegi numerikoak existitzen dira, energia asko kontsumitzen dute eta zabor handia eragiten dute.

Zuzeneko proiektioez zein musikaz baliatu zarete kontakizuna girotzeko.

Antzerkiak dituen tresneria guztiak erabiltzen ditugu: dantza, musika, teatroa, bideogintza, eszenografia, jantzitegia, argi-

"ANTZERKIAK DITUEN TRESNERIA GUZTIAK ERABILTZEN DITUGU: DANTZA, MUSIKA, TEATROA..."



Manex Fuchs eta Ander Lipus aktoreak. AINHOA RESANO



"Zabor gisa jantziak erabili ditugu, zertarako? Gure intimitatearekin oso lotuta dauden arrastoak direlako". AINHOA RESANO



Zaldibarko gertaera eta pandemia hizpide hartu dituzte antzezlanean. AINHOA RESANO

nahiz soinu-diseinu apartak. Enbor eta adar askotatik hartu daiteke istorio hori eta denak eramaten gaituzte galdera-ikur berdinetara.

Ez da gizartea zeharkatzen duen gai bat hizpide hartzen duzuen lehen aldia. Erantzukizun soziala sentitzen al duzue antzerkia egitean?

Bai, nik horrela ulertzen dut antzerkia; antzerkiak, noski, plazera ekartzen du, oholtza gainean zein publikoan. Guk erakusten dugunak ardura dakar, antzerkilari gisa, pentsa erraten diegulako 200-300 ikusleri, "Itxoin, eseri, badut zerbait kontatzeko". Batzuetan, arriskuan jarri behar gara, funtsezko galderak eta erronkak pausatzeko oholtza gainean. Bestela, eroso sentitzen gara gure munduan, baina bihotzak eta arimak ez dakit horrela asko kilikatzen ditugun.

Ikuslegoa al da zuen jardunbidearen sostengu?

Lehenik, uste dut ikus-entzulea inteligentea dela, eta, bigarrenik, inportantea da, elkarrekin, komunitatean funtsezko galderak pausatzea eta ez egotea isolatuak gure etxe txikietan.

Galderak planteatzen dituzue zuek "Hondamendia" obran. Non bilatu erantzunak?

Bizitzako erronkak dira horiek. Ahal duguna egiten dugu guztiok, eta uste dut elkartasunean asko lortzen dela; bertan ere erantzun asko aurkitzen dira. Elkarrekin bideak jorratuz gero, ederragoak eta seguruagoak dira.

"INPORTANTEA DA KOMUNITATEAN FUNTSEZKO GALDERAK PAUSATZEA"



Antzezlanean afitza.

Fitxa teknikoa

- Zuzendaritza: Ximun Fuchs.
- Idazlea: Harkaitz Cano.
- Antzezleak: Ander Lipus, Ane Sagues, Ruth Guimera, Jon Ander Urresti, Maialen Belaustegi, Maite Larburu, Manex Fuchs, Eneko Gil.
- Bideoa: Maialen Belaustegi.
- Koreografia: Philippe Ducou.
- Musika: Maite Larburu, Asier Ituarte.
- Eszenografia: Fran Dussourd.
- Argiztapen diseinua: David Bernues.
- Soinu diseinua: Philippe Barandiaran.
- Teknikaria: Leltxu Ostolaza.
- Ekoizpena: Iasone Parada, Mikel Unamunzaga, Argi Perurena.
- Konpainiak: Artedrama eta Axut!.

egunean
behin

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

- "Aiurri" taldean astero-astero Arruti gozotegiko sari gozoa zozkatuko dugu.
- Egunean Behin 11D: Urt30-Api2.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



GORA ETA BEHERA



AIURRI



Kutxabanken zerbitzua, gainbehera Andoainen

Udaletxetik gertuen dagoen Kutxabanken bulegoan hilabeteak dira kaleko kutzazain automatikoa bakarrik dagoela erabilgarri. Gainerako instalazioak itxi zituzten. Bada, otsailaren 10ean kutzazaina zerbitzuz kanpo zegoen. Eta halaxe jarraitu zuen otsailaren 11n, 12an eta 13an. Andoaindar asko Eskola kalera jaistera behartzen ari dira zerbitzu eskasia horrekin. Bezero ugari dituen herri batean bezeroak hobeto zaindu behar dira.

POSTONTZIA

JON ZULUETA BERASTEGI ANDOAIN, EH BILDUKO ZINEGOTZIA

Hauteskunde giroa piztu da

Hiru hilabete falta dira udal hauteskundeak izateko. Hori da datua. Denbora hori asko edo gutxi den, luze edo labur egingo zaigun, datua baino gehiago da, bizipenari lotua joango baita. Laburra egingo zaigu hautagaitzen prestaketan, programen elaborazioan eta kanpainaren aurreprestaketan gaudenoi, baita udal politika lehen herrietan bizi duten herritar horiei. Luze edo eternitatea irudituko zaie, aldiz, hasi aurretik hautagaien diskurtsoekin gogaiturik daudenei.

Eta azken hauei ez zaie arrazoirik faltako horretan gabiltzanoei askotan horrela gertatzen zaigunerako. Aurkeztu dira jada Andoaingo hautagai nagusiak, eta hasi dira ere posizioak finkatzen. Lehengo astean, egungo alkatea eta PSE-EAJ koalizioako alkategaiak, ohar labur bat kaleratu zuen. C-II

proiektuarekin “zerikusia” duten, elkarte, herritar, enpresa edo alderdiekin bilera erronda egingo zuela iragarri zuen bertan. Bilera horien helburua, “estrategia eta helburu komunak adostea” izango ei da.

Datorren hilean lau urte beteko dira bere gobernukideek proiektua aurkeztu zutela. Eta lau urte beteko dira uztailean gaiaren gainean lidergoa hartu dezala eskatzen diogula. Orain arte, proiektuaren garapenean Foru Aldundiari laguntzeaz gain, gauza ezberdinak egin ditu, eta, oso kontraesankorrak egia esan; proiektuaren aldeko bozka eman dute Batzar Nagusietan zein Foru Aldundiko gobernuan, eta C-IIaren kontrako ekimenetan ere parte hartu dute, dena batera, eta azala gorritu gabe gainera.

Egun batzuk beranduago, bere gobernukidea eta alkateordea izateko hautagaia den Imanol Goenagak hitza hartu zuen EAJ-PNVk BEC-en egin zuen ekitaldi politikoan. Diskurtso landua eta alaia egin zuen. Besteak beste, Andoainek “bultzada berria” behar duela esan zuen. Eta bere alderdia gobernatzeko prest zegoela aitortu zuen pozik, irribarretsua.

Urte luzez oposizioan egon eta aldaketaren beharra aldarrikatzen duen hautagaiaren diskurtsoa bota zuen; azken lau urteotan gobernuan egon izan ez balitz bezala, berak orain arte ardurarik izan ez balu bezala.

Ez da askotan gertatzen, baina oraingoan ados nago PSE-EAJko ordezkariekin. Estrategiak adostu egin behar dira C-II proiektuaren aurrean, eta Andoainek bultzada berria behar du. Hain zuzen ere, hori lortzeko

beste gobernu bat behar dela pentsatzen dugunok, ari gara hautagaitza berri bat prestatzen; Andoni Alvarez Lete buru duen hautagaitza horrek, estrategia ezberdinak adostu eta martxan jarri beharko ditu, eta Andoainek behar duen bultzada berri horren alde egin beharko du, herritar zein eragileekin batera.

Horretarako estilo berri bat eta ideia freskoak behar ditu Andoainek. Zaila izango baitu orain arte aukera izanda lortu ez duenak aurrerantzean arrakasta izatea. Eta jende berri hori animatu behar dugu.

Eta, sarritan, hain gainbaloratua dagoen esperientzia erabili dezagun modu positiboan eta eraginkorrean, sartzen diren pertsona berrien babesean eta laguntzan. Hori izango da egin dezakegun ekarpenik handiena.

Lehen sariduna

Andoaingo Arruti gozotegia da Egunean Behin lehiaketa ezaguneko 11D denboraldiko sarien emalea. Aiurri taldean ehunka jokalarik parte hartzen ari dira, eta lehen asteko partida guztiak jokatu zituztenen artean zozketa egin eta gero Gotzon Lete izan zen saritua. Hark eraman zuen Arrutiko lehen sari gozoa.



AIURRI

Bertso afaria

Mizpiradi sagardotegia bertsozalez bete zen aurreko ostiralean. Unai Agirrerren orde, gripea tarteko, Amets Arzallus bertsolaria aritu zen kantuan. Aitor Mendiluzerekin batera eskainitako bertso-sorta ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. Han izan zirenentzat gogoangarria izan zen.



AIURRI



Mozorro ikusgarria iazko inauterietan. AIURRI

Izarrez beteko da Urnieta, larunbatean

"Urnietako izarrak", horixe da aurtengo mozorro festarako Jai Batzordeak luzatu duen proposamena. Horrenbestez, izarrak ez dira faltako herrian. Urtero bezala, dozenaka herrikide Inauteri festan murgilduko dira Urnietan

Egun osoko ospakizuna



Iaz bezala, inauteri eguneko bazkaria Egapen izango da. AIURRI

Bazkaria Egape Ikastolan egingo da herri bazkaria eguerdiko 14:00tan, Poxta Zaharren eskutik. Ondoren, arratsaldeko 17:00etan, kontzertua egongo da gazte kuadrillek antolatuta.



Idiazabal kalea inauterizaleentzat izango da. AIURRI

Kalejira 17:00etan, Bosko Anitz txaranga abiatuko da San Juan plazatik, eta, gaueko hitzorduari lekukoa emateko, erakustaldiz josiko da Idiazabal kalea Sorginak eta Topatuen ekimenez.

ORITIA MENDI | ERREMONTA BIZIRIK

**OTSAILA 18 LARUNBATA
15:30ETIK AURRERA**

**kutxabank
MASTERS
TXAPELKETA 2023**

1. PARTIDUA (30 TANTO)
SEGUROLA - LARRANAGA vs
URRIZA - APEZETXEA

3. PARTIDUA (40 TANTO)
GOIKOETXEA V - LABAKA vs
LOITEGI - MARTIRENA

GALARRETA JAI ALAI IERNANI

FINAL HANDIA
MASTER TXAPELKETA (30 TANTO)
BARRENETXEA IV vs ANSA II

**EROSI ZURE
SARRERA
ONLINE
ETA ERAMAN**

**PINTXO-POTE
BAT DOAN**



Balastraingo industrigunean Andoaingo Udalak herriko konpartsei utzitako biltegian prestatzen ari dira Sardinen Ehorzketa, Lupercales taldekoak. AIURRI

“Zergatik ez esan agur Inauteriei igande ilunabarrean?”

CHRISTIAN GONZALEZ, ALBERTO LOPEZ LUPERCALES KONPARTSA

Andoaingo konpartsa beteranoak bere gain hartu du Sardinen Segizioaren eta Ehorzketaren antolakuntza. Igandean ospatuko da, 19:30etik aurrera

Xabier Lasa ANDOAIN

Herriko inauteri zale eta festa zale orori luzatu die gonbitea, bertan parte har dezaten.

Zerk animatu zaituzte Sardinen Ehorzketa antolatzerara?

Christian Gonzalez: Pena handia ematen zigun halako jai polita eta parte-hartzailea ahaztuta egotea azken urteetan. Iruditzen zaigu ohiko bizimoduko istorio guztiakin bezala, Andoaingo Inauteri-ospakizunaren zikloa osorik egitea komeni dela; hots, eduki beharko lukeela hasiera, garapena eta bukaera. Sardinen Ehorzketa jai horien errematea izango litzateke.

Atzera begira jartzen bagara, Andoaingen lehendik zectorren ohitura dela ikusten da, partehartzailea. Gogoratzen naiz umetan nola ikusten nuen desfilea, igande gauean; izugarri gogoko nuen. 2013an, Hogar Extremeño elkartearekin lanki-

detzan bultzatu genuen, eta, hurrengo urtean, geuri egokitu zitzaigun segida ematea. Zorixarrez, hortxe eten zen egin ahala. Gauzak horrela, berreskuratzerara animatu gara! Inauteri zale amorratuak gara, eta argi eduki dugu merezi zuela ahalegin bikoitza egitea gure aldetik, larunbata-igandeko ohiko gure konpartsari eutsita batetik, eta igande arratsaldeko ehorzketari ekinda bestetik.

Alberto Lopez: Andoaingen igandea ez dago errotuta larunbata bezainbat, eta errealitate hori iraultzeko osagaiak badaudela uste dugu, behintzat nahi dugu saiakera egin. Horrela, igandean egitarau nahiko osoa eta erakargarria prestatu da, eta larunbatean zabaltzen den Inauteri giroa luza daiteke, hamazazpi konpartsek zein laguntaldean biltzen diren herritarrek denok batera bultzada emanez

gero. Andoaingo Inauteriei zergatik ez egin agur igande ilunabarrean? Tolosako inauteriak, astelehenean zein asteartean, hortxe edukiko ditugu!

Urte batzuetan ez denez antolatuta, akaso komeniko da azaltzea zer den Sardinen Ehorzketa.

C. G.: Madrilen ospatzen ziren jaiekin du jatorria nonbait, XIX. mendearen hasieran Goyak koadro batean erretratatu zuen bezala. Inauterien amaiera gisa antolatzen zen festa zen, eta bertan txerrikume (cerdiña) bat zen protagonista. Ikusten denez, Murtziako ikasle batzuek "sardina" ulertu zuten, eta oker horretatik tiraka, "sardinen" ehorzketan bilakatu zen festa.

Sardinen figuraren gainean kalean egiten den segizioan du oinarri festak azken batean, eta bertan, pertsonaje jakin batzuk hartzen dute protagonismoa: mojek, apaizek, monagilloek, gotzaiak, Aita Santuak, negarkantariak, heriotzaren pertsonifikazioak... Nork bere antzeppen txikia egiten du, denek ere doluz jantzita. Hileta-martxaren doinupean doazen segizioa parte hartzaile horiek kandelak eramaten dituzte eskuetan, espiritu-gaizkileak uxatzeko; izan ere, hilotz den sardinen arima bahitu nahian ibiltzen dira espiritu gaizkile horiek. Heriotza ere hortxe aritzen da bere segarekin xaxatzen, kandelak itzaltzeko grinatuta dabil.

A. L.: Segizioak tristezia ez ezik alaitasuna ere transmititu behar du, eta, horretarako, errepertorio aproposa prestatu du gurekin doan Joselontxos txarangak. Chopinen hileta-martxa pieza joko du noski, baina baita ere festa giroko beste hainbat pieza! **Eta ospakizunaren ordutegia, ibilbidea... zehaztuko al zenukete?**

A. L.: Andoaingo Inauterietan, igandean, egun osorako jaia programatu da, eta azken ekitaldia izango da ehorzketa. Goizean hasita, bakarkako moztrotuek nahiz konpartsek herrian ibil daitezten deialdia zabaldu da. Bazkaria dator segidan Goikoplazako karpan; arratsaldean, Rockalean talde ibiltariak kaleak alaitzen segiko du, eta, 19:30ean, Ehorzketaren txanda iritsiko da. Goikoplaza eta Zumea arteko joan-etorria eginez, ordu beteko iraupena izango du segizioak, eta, 20:30ak aldera, Goikoplazan, udaletxeko balkoitik, azken hitzartzea egingo da;



Lilian, Eli, Lidia eta Marian 2014an. Aurten ere parte hartuko dute. AIURRI

Azken edizioak, 2013an eta 2014an

Garai batean egin zen ere sardinen segizioa eta ondorengo ehorzketa. Lupercales eta Hogar Extremeño elkarteak arduratu ziren 2013an eta Lupercales 2014an. Aurten berriro ekiteko gogoz dira.

Andoaingo eta herritik kanpoko aktualitatea modu ironiko eta umoretsuan jorratuko da.

Pertsonajeak ditu oinarrian ehorzketak. Baina irekia da, edonork har dezake parte.

C. G.: Jakina! Elkarrizketa hauxe nahi genuke probestu gainerako konpartsei eta herritarrei deialdi berezia egiteko, integra dai-tezen segizioan. Lutozko moztrotua edo antzeko zerbait adierazgarria janztea izan liteke, beharbada, egokiena, baina, garrantzitsuena, festarako gogoia edukitzea da, eta aldi berean, Andoaingo Inauteriei agurra modu kolektiboan, eta, kaleak hartuz, egin nahi izatea.

Lupercales konpartsak urtean darama Andoaingo Inauterietan buru belarri.

C. G.: Inauterien festarekin gozatzeko bildu ginen orain dela urte mordoia zenbait lagun. Taldearen izenak berak inauterien historian du erroa; hain zuzen, erromatzen garaiko inauteri kutsuko festa pagano-kristaulari deitzen zitzaion Lupercales.

A. L.: Familia giroan jarduten dugu, belaunaldien arteko topagunea da erabat Lupercales; etxeko umeei txikitatik erakusten diegu inauteriak nola bizi. Inauterien grina gorputzean txertatzen diegu. Era horretan, ez harritu aurreko astetan sei urteko haur bat karroza pintatzen ikusten baduzu!

Geuk festaz gozatzea da bete nahi dugun lehenbiziko printzi-

pioa, eta, bigarrenik, Andoaingo inauteriei ekarpen xumea egitea. Oso pozgarria da guretzat ikustea kalera moztrotuta nahiz moztrotu gabeko herritarrek nola gozatzen duten konpartsen desfilearekin eta geure presentziarekin.

Zer gai hautatu duzue konpartsarako?

Egipziarrez moztrotuko gara aurten. Taldetik, erdiek lau abestiz osatutako koreografia dantzatzeko dute; kontzientziak entseiatu dute, eta ikuskizun polita eta ikusgarria egingo dutela iruditzen zaigu. Eta gainerakook zenbait ardura izendatuta dauzkagu kalejiran barrena. **Ahalegin bikoitza egokitu zaizue aurten. Bi moztrotze saio desberdin....**

A. L.: Guretzat inauteriak hila-bete eta erdi lehenago hasten dira, antolakuntza martxan jartzen dugunean hain zuzen. Afari-bilerak, burutazio eta ideien inguruko hausnarketa, karrozen prestaketa, koreografia osatu eta entseguak egin... Prozesua guztia da inauterien ospakizuna, eta horrexegatik, ez zaigu hainbeste kostatu Ehorzketa antolatzeko erabakia hartzea.

C. G.: Egia da Andoaingo perezaz antzekoa sumatzen dela gauzak antolatzeko orduan, jendeak ez baitu busti nahi herriko dinamiketan. Baina oraingoan ausartu egin gara, eta merezi duelakoan gaude. Ea denon puzerako den.



AIURRI

Lebiton konpartsa, larunbatean

Lebiton Konpartsa, aurreko igandean, Ene Kantak ikuskizuneko gonbidatu berezia izan zen. Saio ikusgarria eskaini zuten Basteroko oholtzan. Larunbat goizean eurekin abiatuko da inauteri festa, Andoaingoan. 10:45etarako hasiko da kalejira Goikoplaza aldean, Zumea plazarako bidean.

Rockalean, igandean

Igande arratsaldean jaiari jarraipena eman nahi diote Andoaingoan. Herri bazkaria antolatuta dute Goikoplazan, eta, arratsaldean, Rockalean talde ezagunak kalejira eskainiko du. Rock estiloko kantu ezagunak eskainiko dituzte, euskaldunak eta nazioartekoak. Giro ederra jarriko dute, kaleetan.



ROCKALEAN



AIURRI

Herria girotzeko deialdia

Merkatalguneetako erakusleihoak, tabernak, etxetako leiho eta balkoiak... inauteri giroko elementuak jartzeko deialdia egin dute Andoaingoan. Maindireak, tela zatiak, maskarak, puxikak... Elementu koloretsuak badira askoz hobe! Argazkian, Bastero Kulturguneko kafetegia iazko Inauterietan.



Larunbatean, kanpalekua ipini zuen Goikoplazan, Kaldereroen Konpartsak. Argazki-sorta eta bideoak, ikusgai webgunean. AIURRI

Erredakzioa AIURRI

Otsaila hilabete hotza izaten ari da, eta eguzkia azken egunotan hasi da bere agerpena egiten. Hori eskerrak, aurtengo Kalderero jaia koloretsuago gertatu da, ikusleen begietara. San Juan Bataiatzailera hurbildu ziren lehen saioa eskaintzera. Segidan, Gora Kaletxiki Bandak girotuta, kaldereroak udalerrian barrena ibili ziren. Goikoplazan kanpalekua ipini zuten eta Zumea plazan eman zioten amaiera. Mozorro hauek kendu dituzte, larunbatean berriak jantzeko.

Inauteri giroa ekarri zuten

Kaldereroen etorrerak iristear diren mozorro egunak iragarri zituen Andoaingen. Eguraldiak lagunduta, ohiko ospakizuna egin zen San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzan hasita. Ostegunetik aurrera, mozorro artean murgilduko da herrikide asko

IRITZIA

JON ANDER UBEDA
ANDOAIN

Inauterizaleen zain, kanpalekua prest

Haurrak eta gurasoak. Bereziki, amak. Eta inoiz hutsik egiten ez duen festazale beterano amorratuen kuadrilla. Adinean gora doaz azken horiek, baina, oraingoz, festaren parte izaten jarraitzen dute. Eta, eskerrak! Ezin bestekoak dira.


Oinarri hori du Andoaingo kalderero jaia. Ospakizuna hari batetik zintzilik dagoela dirudi, kopuruan, eskas antzera dabiltzalako. Estuasunak igaro zituzten, urte batzuk atzera, eta futbolarien "partidaz partida" esera inauterira ekarrita, aurtengoa ere egin ahal izan da. Balio handikoa da gizarte mailako ospakizuna bizirik mantentzea.

Zer dela eta kosta da hainbeste kaldereroei eustea? Andoaingen, eta, oro har, Tolosa ez diren inguruko herrietan, mozzorrotzea egun bakarreko kontua dirudielako. Zeren eta larunbat honetan ia herri osoa kalera aterako baita, mozzorroa jantzita. Apustu segurua da, den-denek egun bakarra seinalatuta.

Positibo jartzen hasita, azken urteotan berreskuratu den Axerrien Puska Biltzeak inauteri festaren iragarpena aurreratu du. Puska Biltzea, Kaldereroak eta inauteria, hurrenkera horretan. Hortxe neguko ospakizunen hirukoa. Esker ona adierazi behar zaie kalderero festari etsu diotenei. Ea datorrenean, lagun gehiago batzen zaien.

Txotx 2023 GARAIAN GARAIKOA: "TXOTX!"

Elkarrizketak, albisteak... Atal berezia webgunean
www.aiurri.eus



Okm:
batzen gaituen
distantzia



Oiartzabal, kaldereroetako musikarien zuzendari lanetan. AIURRI



Ondarreta ikastetxetik Kale Nagusira jaitsi zen Ondarreta ikastetxeko Kaldereroen Konpartsa. AIURRI

Bezperako ospakizuna

Ostiral arratsaldean, kolorez bete zuten Andoaingo herrigunea Ondarreta ikastetxeko komunitateak. Haurrek eta irakasleek, nagusiki, baina baita gurasoren batzuk ere, Hungariako ohitura zaharra biziberritu zuten. Eguraldia lagun, beste poz batekin irten ziren kalderero txikiak. Ospakizunaz gozatzeko, eta etxeko txikienei argazkiak ateratzeko arratsalde aproposa izan zen.



Kalderero giroko abestiak eta doinuak eskaini zituzten kalejiran. AIURRI



Gora Kaletxiki Bandak inauteri giroko ospakizunak girotuko ditu. AIURRI



Esteberen kamioian kalderero gazteenak eta aurtengo erreginak. AIURRI



Ondarreta ikastetxeko ikasleek ostiral arratsaldea girotu zuten. AIURRI

"Gure soldata bizitzaren igoerara moldatzea eskatzen dugu, ez gehiago"

XABIER INZIARTE GREBAN DAUDEN URNIETAKO KIROLDEGIKO LANGILEEN ORDEZKARIA Hilabete pasatxo daramate greba mugagabeen; soldatei 2021-23 hiru urteko KPIa igotzeko eskatuz, 2012-2020 epekoari uko egin ostean. Ez dute akordiorik itxi oraindik

Andoni Urbistondo URNIETA

Asteartean egin zuten azken bilera kiroldegiko langileek Udala arduradunekin, eta orduan lortu ez zuten akordioa lehenbailehen ixteko lanean segitzen dute.

Hilabete pasatxo ja, mugagabeko greba hasi zenutenetik, Xabier. Egiguzu egoeraren kronologia bat, mesedez.

Bizkortzen enpresarekin iazko udaberrian hasi ginen batzartzen, kiroldegi berria ireki aurretik. Gure eskaerak helarazi genizkion, baina azkar jabetu ginen ez zegoela biderik. Uztailean alkatearekin bildu ginen informazioa helarazteko. Agente ezberdinekin ere bai: oposizioko alderdiak, kirol klubak... Herri-tarrei informazio zehatza ematen saiatu gara. Aurrera pausorik ez eta azaroan hiru greba egun egin genituen, tartekatua. Abenduan beste bost, eta mugimendurik ez zegoela ikusita, urtarrilaren 9an greba mugagabeari ekin genion.

Luzerako izango al da?

Irtenbidea kiroldegiko zerbitzuak eskainiko dituen kontratu berri bati lotuta joango da. Kontratu hori ezin da 2024ko maiatza arte aldatu, oraingoa 2022ko maiatzean sinatu zelako, eta bi urte egon behar duelako indarrean, gutxienez. Hori da Udaletik esan digutena. Badakigu herri batzuetan beste modu batera egin direla gauzak. Urnietan, nonbait, ezin da aldaketarik egin, lege kontuengatik. Guk 2024a arte itxarotea onartu dugu, orduan



Dozenaka lagun elkartu zen San Juan plazan, aurreko ostiralean. **AJURRI**

baldintza batzuk betetzen badira.

Zein baldintza?

2012ko hitzarmen baten baitan gaude kontratatuta, eta hori egokitu nahi dugu, azken urteetako KPI aintzat hartuta. 2012-2020 epeko KPI-ri uko egin diogu (%9a, gutxi gorabehera), baina 2021-22-23 hiru urteko KPI 2024ko soldatan egokitzea eskatu dugu. 2021 urteko KPIa %6.4 izan zen, 2022koa 5.6%. 2023koa ikusiko dugu zenbatekoa den. Igoera horiek 2024ko soldatan agertzea eskatu genuen, baina aurreko bederatzi urteko KPI-ri uko egin ostean. Ustez adostasuna bagenuen, baina ja sinatzeko prest geundenean, %6.4ko igoera desagertu zen paperetik. Udaletxeak argudiatu zuen ez genuela ondo azaldu eskaera hori, bat-batean

hain igoera handia aplikatzea ez dela posible eta abar... 2022 eta 2023koa egokitzea proposatu ziguten, baina 2021ekoa ez, %6.4ko igoera handia zelako. Azpimarratu nahi dut berriro aurrez 2012-2020 epeko KPI igoerari uko egin geniola, %9 guttira. 2021-2022 bizitza %12 igo da, igoera handia, baina ez dugu zerikusirik igoera handi horretan. Igoera hori eskatu ezean, gero eta pobreakoak izango gara. **Zenbat langile zaudete greban?**

14. Batzuk lanaldi osoan, beste batzuk orduakako langileak dira. **Eta zenbateko dirutza suposatuko lioke Udalari 2021-2023 KPI egokitzea, 14 langilerentzat?**

Ba ez dakit zehazki, baina kiroldegi berria eraikitzen erabili duten dirutzarekin alderatuta huskeria. Ni mantentze laneta-

ko ofiziala naiz, duela 15 urte, eta 1.400 euroko soldata garbia dut, beste batzuk 1.200 inguru. Gehitu kopuru horri %15, 2021-2023 hiru urteko KPI indizea. Nire kasuan 200 euroko igoera izango litzateke hileko, baina ia hamabost urte soldata igoerarik eman gabe letorkeen egoera da. Eta igoera hori jasotzerako 2024ko uda izango da, gutxienez. Gure soldata bizitzaren igoerara moldatzea eskatzen dugu, ez gehiago. Eskatzen duguna justua dela esango nuke.

Hiruko bat dago joko taulan: langileak, udaletxea eta Bizkortzen enpresa. Zuek Udaletxea duzue solaskide.

Bai, Bizkortzen enpresak ez daukalako gure eskaerak betetzeko ez borondaterik, ezta batera presarik ere. Eurek Udalarekin sinatu zuten hitzarmenean diru jakin bat aipatzen dela diote, eta kopuru horretan ez direla gure demandak sartzen. **Zerbitzuen lizitazioan Udalek kontratuak ia beti diru gutxien eskaintzen duten enpresei ematea al da arazoaren funtsa?**

Bai, dudarik gabe. Eta kontratu horiek ematerakoan ez dietela langileen lan baldintzei erreparatzen. Ez aginte-makila duten alderdiek, ezta oposizioan dauden ere. Indarrean dagoen hitzarmena aho batez sartzen Udaletxearekin, EAJ-PNV, EH-Bildu eta PSE-EEren aldeko bozekin. Oposizioko ordezkariekin batzartu ginen, eta esan ziguten kontratua legezkoa zenez, baiezkoa eman zutela. Langileei galdetu diete noizbait zein diren lan baldintzak? Soldata taula batzuk ikusten dituzte, kopuru batzuk gordin, eta aurrera.

Ze harrera sumatu duzue herritarrengan? Mobilizazioekin kontent zaudete?

Gure egoera azaltzen saiatu gara ahalik eta ondoen, eta ez dugu kezarik sumatu. %15eko igoera eskatzen dugula esaten dugunean, lehen erreazioan jendea belhurtu egiten da pixka bat. Prozesua zehazten diogunean, ordea, ulertzen gaitu. Igoera hori ematen ez badigute gero eta gertuago egongo gara Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatetik, eta horrek gero eta pobreako gara esan nahi du (1.080 euroko diru saria adostu dute aste honetan).

Berri onen bat egongo al da hurrengo egunetan?

Gu alternatibak eskaintzen ari gara Udalari, eskatzen dugun

Urnietako Udalaren ikuspegia

Udalak berretsi nahi du gatazkan dauden bi alderdiei (enpresa eta langilegoa) eskatu diela adostasuna lortzea: "Udala lanerako guneak sortzen saiatzen ari da, akordioak ahalik eta azkarren lor daitezten. Halaber, legeak ahalbidetzen dizkion kontratu erraztasunak jartzen ari da Udala egoera honekin lehenbailehen amaitu ahal izateko".

Prozedura administratioboari dagokionez, behin esleipena eginda, "Udalak ezin du esleipenaren zenbatekoa aldatu, ezta kontratua bere kabuz deuseztatu ere, justifikatutako arrazoirik gabe. Greba ez da deuseztatuko arrazoi bat".

Grebari dagokionez, urtarrilaren 18ko oharrean diotenari eusten dio Udalak: "Enpresak lan gatazka du langileekin, eta, jakina, langileek greba egiteko eskubidea dute. Udalak ezin du greba egitea erabakitzen duten langileek egin ohi duten ekintza edo lanik egin. Horren aurrean, kiroldegiko erabiltzaileekin lan egin dugu, alternatibak bilatzeko eta beren jarduera ahalik eta modu egokienean garatzen jarraitzeko (klubak, eskola-kirola, etab.). Lanean jarraitzen dugu bi alderdiek beren jarrerak hurbildu ditzaten eta alderdi guztiak asebeteko dituen akordio batera iritsi ahal izan daitezten".

igoera beste moduren batean ordaintzea. 2021eko %6.4 KPI osorik ezin bada eman, beste moduren batean ordaintzea, baldintza samurragoekin edo... Proposamen horrek bidea egin dezakeela esan digute, eta itxaropentsu gaude akordioa lortzeko.

Mikel Arberas ANDOAIN

Nondik datorkizu eskalatzeko zaletasuna?

Aniarekin hasi nintzen eskalada munduan murgiltzen. Lehenik harroketan entrenatzeari ekin nion, eta, beranduago, 2015ean, gutxi gorabehera, izotz modalitateari eutsi nion.

Hortaz, zuzenean mendian eskalatzeari ekin al zenion?

Bai, hori da. Andoaingo Amasola eskalada gunean hasi eta, segituan, Huescako Riglos haitz artera joan nintzen. Anaiak materiala erosi eta ea eskalatzera joan nahi nuen galdetu zidan; ez nuen zalantzarik egin. Nire kasuan, praktikatu izotz eskalatzeko.

Ezer ez jakitetik esperientziadun eskalatzailea bilakatu zara. Azaldu apur bat bilakaera hori...

Zorte handia eduki dut. Inguruan esperientzia handiko eskalatzaileak eduki ditut, oso aberasgarria da dakitenengandik ikastea. Horrez gain, azken urteetan, bidai asko egin ditut eskaladari lotuta, eta, horrelakoetan, lagun ugari egiten dira, zaletasun berekoak. Horiek horrela, kontaktua mantentzen dugu, ahal dugunean eskalatzera joateko.

Maila handiko eskalatzaileekin joaten zarenean, gauza oso interesgarriak eta baliagarriak ikasten dituzu, beraz, esan nezake eskalatzaile onenengandik ikasi dudala harrietan gora egiten.

Arestian aipatu bezala, arroketan eskalatzeko hasi zinen, baina, jada, izotzetan eskalatzeari ere ekin diozu. Zein dira bi modalitateen arteko ezberdintasun nagusiak?

Hasteko, bata arroketan eskalatzeko da, eta, bestea ur-jauzi izotzetan. Andoaingo Amasola edo Hernaniko Santa Barbara, esaterako, kirol eskaladaren barnean sartuko genituzke, eta taladroarekin zulatutako seguroez osatuta daude. Beste arroka-gune batzuetan, zure burua segurtatu behar duzu, ez dagoelako ainguratzetik edo zure burua zintzilikatzeko gune finkorik.

Izotzetan eskalatzeko, berriz, oso ezberdina da. Baldintzak oso aldakorak eta ezegonkorak izan ohi dira. Zure burua segurtatu behar duzu, baina tenperaturaren arabera, izotza, gorrago ala bigunago egon daiteke. Beraz, hiltzeak sartzeko edo eskalatzeko zailtasuna handiagoa edo txikiagoa izango da. Jakintza maila handiagoa eskatzen du.


"Onenengandik ikasi dut harrietan gora egiten"

AXIER GUIRADO ESKALATZAILEA

IZOTZ-ESKALADA Urteak daramatza eskaladan murgilduta, harroketan zein izotzetan. Aurki itsasoaz bestalde joango da, Kanadara, izotz eskaladaren paradisura



Guirado ur-jauzi izoztua eskalatzeko. GUIRADO



Axier Guirado andoaindarra. GUIRADO

Prestakuntza berezirik behar al da izotzetan eskalatzeko?

Lehen aldiz, askorik jakin gabe eskalatu nuen izotzetan, baina bazekien norbaitekin. Hala ere, oinarrizko jakintza edukitzea eta izotzetan eskalatzeko dakien norbaitekin joatea ezinbestekoa dela esango nuke. Horrez gain, arroketan eskalatzeko ere baliagarria izan daiteke, esperientzia hartzeko eta, ezberdina den arren, gutxieneko jakintza batzuk zeureganatzeko.

Oker ez banago, martxoan Kanadara joango zara beste kide batzuekin batera, izotzetan eskalatzera...

Halaxe da, hiru astez egongo gara Kanadara. Esan digutenaren arabera, eskalatzeko baldintza egokiak daude Ipar Ameriketara; hotz handia egiten du eta ur-jauzi gehienak izoztuta omen daude. Hala ere, eguraldiaren baldintzapean egongo gara. Dena dela, ahalik eta gehien eskalatzeko da gure helburua. Hasiera batean, ur-jauzi txikietan entrenatzeko asmoa dugu, eta, ondoren, handiagoak egongo genituzke. Gainera, lagun talde polita elkartu gara: huescatar, bilbotar eta errioxar banarekin.

Zer behar du kirolari batek eskalatzeko izateko?

Iruditzen zait, mendizaleek eta eskalatzaileek antzerako profila dutela; hau da, hirietako aglomerazioak atzean uztea dute xede, naturaz gozatu eta egunerokotasuneko errutinatik ihes egiteko. Horrez gain, oso kirolari motibatuak dira, norberaren mugak non dauden jakitea gustatzen zaien horietakoa. Hortaz, gogoia edukitzea ezinbestekoa da.

Materialari dagokionez ere, ezberdintasun handiak egongo direla pentsatzen du...

Arroketan eskalatzeko, nahikoa da katu oinak, soka, arnesa eta 'grigri' zein 'express'ak edukitzea. Izotzetan, berriz, material gehiago behar da: kranpoiak, piolet teknikoak, izotza zulatzeko tresneria, torlojuak, arropa egokia eta arnesa, beste batzuen artean. Horiek horrela, izotzetan eskalatzeko ere garestiagoa da. Dena den, materialaren kantitatea egingo den ibilbidearen arabera izango da; hots, ez da gauza berbera, 50 metroko ur-jauzi bat eskalatzeko edo 700 metroko ibilbide bat egitea. Faktore asko hartu behar dira kontuan.

Hortaz, arriskutsuagoa izango da izotzetan eskalatzeko, ezta?

Neurri batean, bai. Hala ere, baldintza egokietan eta dakien norbaitekin eskalatu gero ez dago ezer gertatu beharrik. Esan beharra dago, izotza baldintza egokietan harria bezain gogorra dela.

Tentsio unerik bizitu al duzue izotzetan eskalatzeko?

Egia esan, ez. Harroketan, aldiz, bai. Esaterako, duela bi hilabete lagun batek 15 metroko erorketa eduki eta kolpe handi samarra hartu zuen; zorionez, ondo dago, soilik, gorputza mindua eduki zuen hurrengo egunetan. Eta horrela, zenbait pasadizo kontaktuko nizkizuke. Hala ere, jazoeira larririk ez.



Maila bikaina erakutsi dute eskualdeko ordezkariak. DENONTZAT

Eskualdekoen emaitza bikainak BECeKo Hyrox txapelketan

HYROX Aitor Lizarazuk, Ismael Mateok eta Igor Arrutik lehen postua eskuratu dute beren adin tartetean

Erredakzioa ANDOAIN

Ehun lagunetik gora lehiatu zen BECen egin zuten Hyrox txapelketan. Maila altuenean lehiatu ziren Aitor Lizarazu, Igor Arruti eta Ismael Mateo eskualdeko hiru ordezkariak. Lizarazuk bigarren postua eskuratu zuen

sailkapen orokorrena, eta lehen postua 30-34 urtekoen artean. Igor Arrutik, laugarren postua lortu zuen sailkapen orokorrean, eta lehenengoa 25-29 adin tartean. Ismael Mateok 15. postua lortu zuen sailkapen orokorrean eta lehenengoa 50-54 adin tartean.

FUTBOLA Garaipen argia eskuratu zuen Urnietak

Mariño taldearen aurka garaipen argi eskuratu zuen talde gorritxoak (4-0). Sailkapenean hirugarren doaz, 2 garaipenekin.

FUTBOLA

Senior maila, igoera fasea

SAILKAPENA

1	SANPEDROTARRA B	9 puntu
2	LANDETXA	7 puntu
3	URNIETA	6 puntu

FUTBOLA puntu berri bat gaikaldean jarraitzeko

Euskaldunak berdinketa lortu zuen Lagun Onaken zelaian (1-1). Beasainen aurka bezalaxe, emaitza errepikatu zuen.

FUTBOLA

Ohorezko jubenil maila

SAILKAPENA

1	ANAITASUNA	39 puntu
2	EUSKALDUNA	35 puntu
3	URKI	32 puntu



Ansa. ORIAMENDI

Barrenetxea eta Ansa, Masters txapelaren bila

ERREMONTEA Ligaxkako azken partidaren eta finalean protagonistak berberak dira

Erredakzioa URNIETA

Kutxabank Masters Serien txapelketan, ligaxka amaituta, puntuaketa onena Ansa urnietarrak lortu du. Barrenetxea izan da bigarrena. Eta horrelaxe iritsi dira larunbat honetako finalera. Ligaxkan nagusitzeak baliorik ba al du? Benetan balio duena txapela janztea da, eta, asteburu honetan, Ansak lehena lor dezake. Oso final irekia dago aurretik, aurreko asteburuan ligaxka itxi zuen partidaren Ansa Barrenetxea baino hobeago izan zelako. Finalak, ordea, partida bakarrera jokatzeko dira eta tentsazioak erabat alda daitezke. Larunbat arratsaldean, giro beroa espero da Galarretan.

Ligaxkako azken partidaren: Ansa 30-24 Barrenetxea IV

Ikusle asko gerturatu zen, aurreko asteburuan. Protagonistek zaleen gogoko erakustaldia eskaini zuten. Piloteo onak izan ziren partida osoan. Barrenetxea IVak hobeto ekin zion hasieran, baina ondoren Ansa urnietarra gailentzen hasi zen. Akats gutxi partida izan zen. Ansak konfiantza handia erakutsi zuen eta sakearekin hernaniarraren portzentaiak berdindu zituen. Finalean erakustaldia egin nahi du, berriro.



Leizaran taldea, artxibko irudian. LEIZARAN

Sailkapenaren zulotik irteteko garaipen garrantzitsua

ESKUBALOIA Euskadiko senior emakumezkoen ligan garaipen estua lortu zuen Leizaran Lanbroa taldeak

Erredakzioa ANDOAIN

Leizaran-Jarrilleras (30-29) partida estua izan zen, oso. Baina behar-beharrezkoa. Inauterien ostean, bide horretan sakontzeko aukera berria izango dute, azken-aurreko Lema sailkatutaren aurka ariko baitira.

ESKUBALOIA

Euskadiko senior emakumezkoen liga

SAILKAPENA

1	EREINTZA	25 puntu
8	ERAIKEN	14 puntu
9	LEIZARAN	8 puntu
11	LEMA	5 puntu
12	JARRILLERAS	4 puntu



Haizea Lekuona, Urnieta Quel Abogados taldeko jokalaria. URNIETA

Bolada onean da Urnietako Quel Abogados senior mailako taldea

ESKUBALOIA Emakumezkoen senior taldea maila oso ona erakusten ari da; bigarren sailkatua gertu dute

Erredakzioa ANDOAIN

Tolosa garaitu zuten, aurreko igandean, Usabal kiroldegian jokatu zuten partidaren (21-16). Galtzen hasi baziren ere, minutuak aurrera joan ahala partidaren nagusitasuna erakutsi zuten.

ESKUBALOIA

1. Lurraldeko senior emakumezkoen liga

SAILKAPENA

1	EIBAR	27 puntu
2	ZUHEGAN	23 puntu
3	URNIETA	22 puntu
4	IRAULI	21 puntu
5	MUNTARPE	18 puntu

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Ane Meyer BURUNTZALDEA

Mendizabal-Aldai nagusi, Masters Laboral Kutxan

ESKUPILOTA Garai-Gaminde bikotea garaitu zuten (22-16), Amezketako Larrunari pilotalekuan

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaindarrak beste garaipen bat eskuratu du, binakako Master Laboral Kutxa pilota txapelketan. Amaia Aldairekin bikotea osatuta, partida ikusgarria jokatu zuten, emozioz eta kalitatez beterikoa. Lehen tantotik mar-

kagailuan aurretik joan ziren Aldai eta Mendizabal, baina alde handirik atera gabe. Bi atzelariak oso seguru aritu ziren, akatsik egin gabe eta pilotakada indartsuak emanez. Tantoak aurrean egin zituzten: Aldaik, erasoan maila handia eskaini zuen.

CD Ibizan da Hernandez

FUTBOLA RFEF bigarren mailan ari da lehiatzen CD Ibiza taldea, eta, aste batzuk atzera, Iker Hernandez urnietara aurrelaria fitxatu zuten. Munduan barrena hamaika taldetan aritu da, eta, aste hauetan, Ibiza aldean ekin dio abentura berriari. Saikapenean atzealdean daude, maila jaisteko postuetatik ihes egin nahian. Aurrekoan, berdinketa lortu zuten.



IKERHERNANDEZ

Garaipen ikusgarria

FUTBOLA Zipreko ligan da Jon Gaztañaga andoaindarra. Indiako ligatik Karmiotissa taldeak Zipren aritzeko deitu zuen, eta, aurreko asteburuan, Gaztañaga partida zirrargarrian protagonista izan zen. 3-4 gailendu ziren Apollon Limassolen zelaian. 3-2 galtzen ari zirela, azken 10 minututan bi gol sartu zituzten. Gaztañagak partida osoa jokatu zuen.



GAZTAÑAGA

LEHIAKETA Asteburu honetan ez da jarudnaldirik izango

Futbola, eskubaloia, saskibaloia... asteburu honetan etenaldia izango da, inauteriak tarteko. Salbuespenak salbuespen, talde gehienek jai izango dute. Lehian murgilduko dira berriro, otsailko azken asteburuan.



GANBARA

Ganbarak hirutik hiru garaipen eskuratu ditu

SASKIBALOIA Partaidetza A2 ligaxkan lehen postuan dago, saikapenean. Aterpe, aldiz, azkena

Erredakzioa ANDOAIN

Garaipena eskuratuta, gainera, Touring azken aurreko postuan da. Euskaldunak goian jarraitzeke aukera berria du.

SASKIBALOIA

Junior gizonzezkoak, partaidetza

SAILKAPENA

1	GANBARA	3/3
2	EASO	3/3
3	INTER	2/3



ASIER RAJADO

Podiuma, urteko lehenean hasita

ATLETISMOA Aurreko asteburuan Kobaz Koba 26 kilometroko mendi lasterketa antolatu zuten, Zestoa aldean. Iñigo Uribe izan zen lehena eta Hodei Lujanbiok osatu zuen podiuma. Asier Rajadok (ezkerrekoa) aho bete hortz utzi zuen publikoa: "Denboraldi berria, kolore berriak, erronka eta helburu asko aurretik. Gozatu ederra gaur, sentsazio geroz eta hobeagoekin". Zorionak!



BURUNTZALDEA IKT

Gaztetxoek ere igerilekuan

IGERIKETA Test/KZL Ligaren baitan, Buruntzaldea IKT taldeko hainbat lagunek Lasarte-Oriako jardunaldian parte hartu zuten. Tartean, Kerman Miguel, Urko Azpiazu, Liher Albizu eta Ander Martinez benjamin mailako andoaindarrak. Alebinen artea Oihan Matute aritu zen. Martxoaren 4an saio berria izango dute, Tolosako Usabal igerilekuan.

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

• Kirol albisteak

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 16

URNIETA Informazio-gunea

Energia komunitateari lotutako informazioa, Kiroldagiko bulego batean. Ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-20:00).

Azken eguna: *Otsailak 23.*

ANDOAIN, URNIETA Matrikulazioa

Ikasturte berriari begira matrikulazio-epaia aste honetan zabaldu da EAEn. Aukera zabala bi udalerrietan.

Azken eguna: *Otsailak 24.*

ANDOAIN Erakusketa

Andoainen jaio eta Barasoainen hil zen Imanol Bengoetxea artistaren obrak ikusgai daude.

Otsailak 25. Bastero.

ANDOAIN Argazki-Lehiaketa

Inauterietako argazki-lehiaketa. Sari bakarra: 350 euro.

Lanak aurkezteko epea:

Martxoak 10. Bastero.

URNIETA Lehiaketa

Antia literatur lehiaketa haur, gazte eta helduen mailetan.

Lanak aurkezteko epea:

Martxoak 17. Lekaia.

ANDOAIN Inauteriak

16:10 Pregoia eta txupinazoa.

18:00 Potx eta Lotx pailazoak Goikoplazan.

18:30 Olagaingo txistularien kalejira Zumea plazatik Goikoplazara.

Arratsaldean hasita.



Inauteriak Andoainen eta Urnietan. AIURRI

ANDOAIN, URNIETA Inauteriak

Mozorroa jantzi eta kalera ateratzeko egunak iristear dira.

Otsailak 16-19. Andoain.

Otsailak 18, larunbata. Urnieta.

OSTIRALA 17

ANDOAIN Inauteriak

17:30 Bingo berezia, Gazte Lokala.

18:00 "Fantasia" Kalejira.

21:30 Kokein Goikoplazan.

23:15 Natural Project Goikoplazan.

00:00-01:30 Gautxori bus zerbitzua, elizaren atzealdetik.

Arratsaldean hasita.

LARUNBATA 18

URNIETA Inauteriak

14:00 Herri bazkaria, Egapen.

17:00 Kalejira, ospakizun nagusia.

21:00 DJ saioa Idiazabal kalean.

Egun osoan.

ANDOAIN Inauteriak

10:45 Lebiton Konpartsaren irteera.

17:00 Desfilea, ospakizun nagusia.

20:00 Laiotz taldea Goikoplazan.

23:30 Nemux DJ festa Nafarroa plazan.

00:00-03:30 Gautxori bus zerbitzua, San Martin elizaren atzealdetik.

Egun osoan.

IGANDEA 19

ANDOAIN Inauteriak

12:00 Mozorro festaren jarraipena.

16:45 Rockalean.

19:30 Sardinaren segizioa.

20:30 Sardinaren ehorzketa.

Egun osoan.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****El triángulo de la tristeza**

Lar, 18. 19:30, 22:00.

Ig., 19. 19:30.


Astl, 20. 19:30, 22:00.

Los Fabelman

Lar, 25. 19:30, 22:00.

Ig., 26. 19:30.

Astl, 27. 19:30, 22:00.



SINOPSISIA

**El triángulo de la tristeza**

Zuzendaria, gidioia: Ruben Östlund. **Aktoreak:** Harris Dickinson, Charlbi Dean, Zlatko Buric, Dolly De Leon, Woody Harrelson, Vicki Berlin, Henrik Dorsin, Sunnyi Melles, Jean-Christophe Folly, Iris Berben. **Herrialdea:** Suedia (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania.

Generoa: Drama, satira. **Iraupena:** 149 min.

Glamourra, hankaz gora

Modaren Astearen ondoren, Carl eta Yaya influencer bikotea, luxuzko bidaia batera gonbidatzen dituzte. Tripulazioak gonbidatu aberatsei behar den arreta guztia eskaintzen dien

bitartean, kapitainak ez du kabinatik irten nahi, gala-afari ospetsua laster iritsiko den arren. Ustekabean, bidaiarien erosotasuna arriskuan jartzen duen ekaitza sortzen da. Satirez beteriko filma.



andoainDARRA
euskaraz

aiurri.eus



- Iritzia
- Postontzia
- Komunitatea



Urnietako
udala

GR92a, Aste Santuan

Euskalduna mendigoizale taldeak Aste Santurako irteera antolatu du, Gironako GR-92an barrena. Hiru egunetan, Portboutik Rosesera joateko asmoa dute. Apirilaren 6an irten eta 10ean itzuliko dira. Aukeran, ibilaldi luzeak eta motzak jarriko dituzte. Izen ematea zabalik dago, bazkideentzat; bazkide ez direnen kasuan, berriz, otsailaren 21etik aurrera.



WIKIPEDIA

"Zaintza eta garbiketa sektoreko emakume langileak"

Erakusketa antolatu du Itaiak Urnietan, zaintza eta garbiketa sektorea abiapuntutzat hartuta

Erredakzioa URNIETA

Hilaren 22tik 24ra bitarte egongo da ikusgai herriko Lekaio kultur etxean eta "hausnarke-tarako abagune" izatea nahi du talde eragileak. Hala, azken egunean, amaiera ekitaldia izango da arratsaldeko 18:30ean, antolatzaileen hitzetan, erakusketa testuinguruan kokatu eta sektoreko lan-baldintzen gainean hausnartzeko: "Emakumeen zapalkuntza forma desberdinak islatzen dituzten irudiak eta informazioa jasoko ditu, argazki zein testu desberdinen bidez".



Itaiaren elkarretaratzea. ITAIA



TANXUGUEIRAS

Tanxugueiras, Basteron

Otsailaren 24an, telebistaren bidez, aski ezaguna egin den Galizako hirukotea hurbilduko da Bastero Kulturgunera. Azken sarrerak salgai daude, beraz, jendetza elkartuko da Andoainen. Ikusleen gogokenak izan ziren 2022ko Eurovision jaialdirako aurre hautaketa fasean. Geroztik, hainbat emanaldi eskaini dituzte.

KOMUNITATEA

AEK EUSKALTEGIA
ANDOAIN, URNIETA

Udako barnetegia % 25 merkeago

AEK-ko ikaslea bazara, eta, udan barnetegia egiteko asmoa badaukazu, deskontu ederra izan dezakezu. Izan ere, martxoaren 24a baino lehen izena ematen baduzu, % 25 gutxiago ordaindu beharko duzu.

Deskontuaz baliatzeko derrigorrezkoa da 2022/2023 ikasturtean AEK-ko ikasle izatea, hirurogei orduko edo gehiagoko ikastaroren batean.

Informazio gehiago

Informazio gehiagorako, galdetu zure irakasleari! Beste aukera batzuk:

- 673 200 100.
- 946 464 000.
- udabarnetegiak@aekeus

Barnetegietan, egunean sei orduz egongo zara eskolan euskara ikasten, eta, horiek bukatuta, euskaraz mintzatzeko jarraituko duzu. Barnetegia ezinbesteko bultzada da euskararen ikas prozesuan, euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzeko aukera bikaina, 15 egunez inguru euskalduneari murgiltzeko bidea ematen baituzu. Izan ere, bat-batean, leku euskaldun batean egonik, eguneroko bizimodua euskaraz egiten baituzu. Aprobetxatu AEK-ren eskaintza berezia! Ez galdu aukera!

ZORION-AGURRAK



URNIETA
Zorionak Peio
Peio, zorionak! Hamahirugarren urtea betetzen duzu. Egun oparoa igaro eta gozatu etxekeokin.



ANDOAIN
Zorionak Aitor
Otsailaren 18an hiru urte betetzen dituzu. Jarraitu orain bezain alai eta jator. Muxu handi eta potolo bat amona Begoña eta aitona Mikelen partetik.



ANDOAIN
Ane Etxezarreta Jauregi
Anek 8 urte beteko ditu otsailaren 16an. Zorionak eta muxu potoloak etxekeoen partetik.



ANDOAIN
Naroa Vicente Muñoz
Naroak otsailaren 19an 8 urte beteko ditu. Jarraitu orain bezain alai eta jator! Zoragarria zara! Julen, amatxo eta aitaxo.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro

ESKELA

Patxi Mendikute Mujika



Andoainen hil zen, 2023ko otsailaren 7an, 80 urte zituela



Auzoan eta elkartearen alaitasuna zabaltzen eta lagunartea goxatzen gogoratuko zaitugu beti, adiskide Patxi.



Andoainen, 2023ko otsailaren 8an



Ixiar Arin Arrieta, 2016ko martxoan ateratako argazkian. AIURRI

Ixiar Arin Arrieta, euskarari eutsi zion bidegilea

Euskara gizartearen esparru guztietara iritsi bada, iraganean eta garai zailetan bidegile lanetan aritu zirenei esker izan da. Horietakoa zen Ixiar Arin Arrieta andoaindarra. Diktadurapean, euskara galerazita zegoen garaian, euskal kulturaren alde jardun zen

Xabier Lasa, J.Ander Ubeda ANDOAIN
Euskara ardatz zuen andoaindarra zendu zen, astelehenean. Frankismoan euskararen alde ausarki jardun izanagatik omen-
du zuten 2016ko Martxoak 8 Emakume kalejiran. Garai hartaz galdetuta, hauxe erantzun zion Arinek Aiurriri: "Aitak beti kontatu izan zigun gerra aurretik euskara zenbat zegoen zabaldua, gerrarekin batera zenbat zapaldu zen... *Euskararik gabe euskaldunok ez gara ezer ideia hezurretaraino sartu zigun. Pertsona guztiek gauzak egiten ditugu momentu jakinetan, obligazioa ikusten dugulako eta kontzientziak eskatzen digulako,*

ez bestegatik. Horixe gertatu zitzaidan niri ere garai hartan. Ez da lan erraza frankismoa bizitu ez zuenari azaltzea euskarak orduan jasaten zuen zapalkuntza. Erdara zen nagusi, eta han ez zen ausartzen inor euskara euskaldunon hizkuntza zela aldarrikatzera. Egoera hartan, niri, euskaldun gisa, barrutik irten zitzaidan euskaraz ez zekitenei erakusten saiatzea. Gazte izateak ematen duen ausardia, errebeldia, indarra!". Euskara irakastea ez ezik, ikastolen sorkuntzan ere parte hartu zuen. Eta, bestalde, euskal antzerkigintza bizirik irauten lagundu zuen herrikideetako

izan zen. Antzerkigintzari lotutako garaiak gogoratuz, denbora-pasaren balioa azpimarratu zuen Ixiar Arinek, 2016ko irailean Udaleko euskara sailak eta Santa Krutz jubilatuen elkarteak antolatutako mahai-inguruan: "Nahiko bizimodu iluna bizi zuen jendeak frankismoan alde guztietatik begiratuta, eta barre egiteko izugarritzko premia eta gogoia zeukan".

Herriko beste biktimekin batera, Oroituz elkarteak eta Andoaingo Udalak lankidetzan frankismoaren krimenen aurka Tolosako eta Buenos Aireseko epaitegietan aurkeztu zuten keirelan pertsonatu zen ere.

Euskara zuen aberria



Ezker-eskuin: Juan Luis Azpiazu, Iñaki Arin, Ixiar Arin, Mari Karmen Zuaznabar, Sekundino Etxeberria, Begoña Arregi, Xabino Uranga, Mari Paz Artolazabal, Roke Etxeberria, Koldo Albusua eta Joseba Aldalur. Calderon de la Barcaren "Txalupak jaberik ez" obra Iparragirre zineman eskaini zutenean. ETXEBERRIA

Euskaraz "Zinema asteburuetan ematen zenez, aste barruan egin behar izaten genituen antzeppenak, eta hala ere, antzokia lepo betetzen zen. Andoaingo jendea Euskarazko antzerkia ikusteko gose zen", gogoan du Xabino Urangak.



Diktadurapean, euskarazko antzerkia egin zuten Andoainen. AIURRI

Larramendi antzerki taldea Jose Joakin Jauregi, Koldo Albusua, Sabino Uranga, Joxe Mari Uranga, Mari Karmen Zuaznabar, Ixiar Arin, Pilar Rodriguez eta Begoña Arregi 2016an elkartu ziren, 60ko hamarkadako antzerki taldea gogoan hartzeko.



2016ko martxoan aitortza jaso zuen, Martxoak 8 emakume kalejiran. AIURRI

Martxoak 8 emakume Urte hartako omenduetako izan zen honako hauekin batera: Milagros Sorraín, Tere Otamendi, Itziar Gorostegi, Juanita Ikutza, Beatriz Garcia, Karmina Dominguez, Marga Oyarzun eta Gaztelekuko pala taldeko emakumeak.